



**ERABAKIA, [REDACTED] JAUNAK EUSKADIKO ERRUGBI
FEDERAZIOAREN KIROL DIZIPLINAKO BATZORDEAREN 2015eko
OTSAILAREN 11ko ERABAKIEN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA
PARTZIALKI BAIESTEN DUENA**

Espediente-zenbakia: 8/2015

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- [REDACTED] jaunak, Atlético San Sebastián taldearen zelaiko ordezkariak, errekurtsoa aurkeztu zuen Euskadiko Errugbi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2015eko otsailaren 11ko Erabakien aurka; erabaki horien arabera: a) HILABETEZ gaitasungabetzeko zigorra jarri zaio [REDACTED] jaunari, zelaiko ordezkari den aldetik, 75. artikuluko b) paragrafoan bildutako arau-hauste larria egiteagatik, 50 artikulua b, c eta d paragrafoei dagokienez; b) Club Atlético San Sebastián taldeari 35 euroko isuna jarri zaio 75. artikuluko b paragrafoan bildutako arau-hauste larria egiteagatik, 50. artikulua b, c eta d paragrafoei dagokienez; eta c) 100 euroko isuna jarri zaio Club Atlético San Sebastián taldeari, 81.f) artikuluan bildutako arau-hauste larria egiteagatik, 53. artikuluari dagokionez.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hau izapidetzeko onartzea erabaki zuen, Euskadiko Errugbi Federazioari espedientea eskatzea, baita erakunde interesdunei entzunaldi-izapidea ematea ere.

Halaber, 2015eko otsailaren 26ko Erabaki bidez, Batzorde honek HILABETEZ gaitasungabetzeko zigorra kautelarki indargabetu zuen, jarritako errekurtsoari buruzko behin betiko ebazpena eman arte.



HIRUGARRENA.- 2015eko martxoaren 20an, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan Euskadiko Errugbi Federazioak igorritako espedientea sartu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, halaxe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan; urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, kirol-diziplinari buruzko Arautegia ezarten duenak, 29. artikuluan; eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

BIGARRENA.- Atlético San Sebastián taldearen zelaiko ordezkari [REDACTED] [REDACTED] jaunari eta errugbi-talde horri zehapenak jartzea eragin duten gertakariak talde horren eta Hernani Club de Rugby Elkarteko "B" taldearen arteko partidari gertatu ziren; Euskal Ligako partida zen, 2015eko otsailaren 7an jokatu zen, eta, epaile-aktan agertzen denez, "ATSS taldearen eremu teknikoan, eremu horretan egoteko **"baimenik gabeko"** jendea egon zen bigarren zati osoan, eta zelaiko ordezkariak ez zuen ezer egin".

Gertakari horiengatik hiru zigor jarri ziren. Lehena, zelaiko ordezkaria HILABETEZ gaitasungabetzea, 75. artikuluko b) paragrafoan bildutako arau-hauste larria egiteagatik, 50 artikuluko b, c eta d paragrafoei dagokienez; bigarrena, Atlético San Sebastián errugbi-taldeari 35 euroko isuna 75. artikuluko b paragrafoan bildutako arau-hauste larria egiteagatik, 50. artikuluko b, c eta d paragrafoei dagokienez; eta, hirugarrena, 100 euroko isuna Club Atlético San Sebastián errugbi-taldeari, 81.f) artikuluan bildutako arau-hauste larria egiteagatik, 53. artikuluari dagokionez. Aipatutako arau guztiak Partidu eta Lehiaketen Arautegian jasota daude.



Leporatutako arau-haustek zeintzuk diren, zer zigor jarri diren eta zigor horiek zuzenbidearen arabekoak ote diren aztertu aurretik, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honen ebazpenen norainokoa zehaztu behar dugu, erreklamaziogileak ondorioztatu dituen eskaerei dagokienez.

Izan ere, errekurtsua jartzeko idazkian, asmo nagusia aipatzen du –zigorra berrikustea– baina horretaz gain, Batzorde honi zera eskatu dio, Federazioaren epaile-elkargora jo dezala, irizpideak bateratze aldera; edo bestela, partidako epaileari azalpenak eskatzea, edo Euskadiko Errugbi Federazioari bere mendeko sekzioak zaindu eta kontrolatu ditzala eskatzea.

Ildo beretik, Batzorde honi ezin zaio eskatu gai horiei buruzko iritzirik emateko, gure eginkizuna baita guri dagozkigun gaitan federazioak egindako egintzak berrikustea eta, kasu honetan, errekurtsoren xede den federazioaren egintza zigorra ezartzea izan baita, bai erreklamaziogileari, bai Atlético San Sebastián errugbi-taldeari; beraz, alderdi horiek baino ez ditugu aztertuko.

HIRUGARRENA.- Aurreko oinarrian azaldu ditugu errekurtsogileari eta errugbi-taldeari leporatutako arau-haustek; orain, aldiz, zehatutako egintzak aztertuko ditugu.

Hori horrela izanik, lehenik, epaile-aktaren arabera, Atlético San Sebastián taldearen eta Hernani Club de Rugby “B” taldearen arteko partidaren bigarren zatian, Atlético San Sebastián taldearen eremu teknikoan baimenik gabeko jendea egon zen eta, aktan dioenez, zelaiko ordezkariak ez zuen ezer egin hori ez gertatzeko.



Epailleak epaile-aktari erantsitako azalpen batean dioenez, zelaiko ordezkariak ez zuen halakotzat jardun, hiru aldiz saiatu baitzen hura bilatzen zelaiaren alboan eta ez zuen aurkitu.

Jokabide horrekin urratzen diren arauetara dagokienez, 1 zenbakidun zirkularra aipatu behar dugu: Euskal Ligen Araudia-2014/2015 denboraldia; 16.8 artikulua araberak, *“Partiduaren garapenean zehar, perimetro babes-gunean soilik mantendu ahal izango dira taldeetako masajistak, joko-eremuko ordezkariak, aginte agenteak eta entrenatzaileak. Gainerako guztiak, ordezeko jokalariek barne, ikusle-gunean finkatuko dira, zeinetan talde bakoitzari dagokion gunea mugatuko zaion, biak ere albo berdinean ezarriak izanik”*.

Aldi berean, aurreikuspen horren sorburua Partidu eta Lehiaketen Arautegiaren VIII. kapituluko 53. artikuluan –joko-eremuetako Ordenari buruzkoa– xedatutakoa da; honako hau dio:

Partidu baten garapenean zehar joko-eremuan talde bakoitzean aldi berean parte hartu ahal duten jokalariek jaun/andreen eta epailek jaun/andreen sarrera baino ez da onartuko.

Era berean, partiduaren ospakizunean zehar taldeko masajista jaun/andreak, Joko-eremuko Ordezkariek jaun/andreak, Osasun Zerbitzu eta Agintaritzaren Agenteak baino ezin izango dira babes gune perimetralean egon. Halaber bermatutako argazkilariak eta Telebistako kamerak egon ahal izango dira. Epailleak partiduaren martxa egokirako egokitzen jotzen badu, pertsona hauetako batzuk babes-gunea utzi dezaten agindu ahal izango du eta lesionatuak artatzeko egokitzen jotzen duenean joko-eremuan masajista jaun/andreen sarrera baimenduko du.

Gainerako guztiek publikoarentzako gunean egon beharko dute, entrenatzaile jaun/andre eta ordezeko jokalariek jaun/andreak barne, zein talde bakoitzerako gordetako gunean kokatuko baitira eta bi taldeak albo berdinean kokatuko dira. Salbuespen bezala, epailek jaun/andreak talde bateko ala bi taldeetako teknikari jaun/andre eta jokalariek jaun/andreak beste toki batean jartzeko baimendu ahal izango du, esleitutakoan larritasun bereziko eragozpenak ala nahasmenduak gertatu ahal



liratekeela uste badu. Beste bat ordeztuko duen jokalaria jaun/andreak aldatuta ala ordezkapenaren kasuan soilik izan ahal du sarbidea; erdigunearekiko linearekiko ahalik eta hurbilen dagoen tokitik joko-eremuan sartzeko epailearen baimenaren zain egongo da. Bi taldeak albo berdinetik sartuko dira. Masajista, Joko Arautegian ezartzen diren baldintzak betetzen direnean sartu ahal izango da. Lehenengo atala amaitzen denean, epaile jaun/andreak baimena eman ahal izango du teknikari jaun/andreak bere taldeak artatu ditzaten joko-eremuan sartzeko, beste jokalaria batzuk ordeztu ahal dituzten ordezkari jaun/andreak barne. Eskumeneko Federazioak babes-gunean sartzea ala entrenatzaile jaun/andreak nahiz talde teknikoa beste toki batean kokatzea zein beste baldintzetan baimentzen duen erabaki ahal izango du.

Erreklamaziogileak egindako alegazioetan ez da ukatzen baimenik gabeko jendea babes-perimetroan zegoela egia denik, errekurtsogileak berak baitio partida guztietan gertatzen dela hori eta ez dela inoiz zigorrik jartzen.

Epaileak errekurtsogilea zelaiaren alboan bilatu zuela dio, baina ez zuela aurkitu; horri dagokionez, errekurtsogileak dio bera zelaiaren egon zela partida osoan, baina makilen atzeko aldean kokatu zela (lekuko batek –Euskadiko Errugbi Federazioaren idazkariak– egindako adierazpenean egiaztatuta dago hori, harekin egon baitzen partida jokatzen ari ziren bitartean).

Illo beretik, Federazioak berak onartu duenez, inork ez du zalantzan jarri zelaiko ordezkaria zelaiaren zegoenik, baina adierazitako tokian baimenik gabeko jendea zegoela ez da ukatu, eta hori ez dator bat adierazitako aurreikuspenekin.

Horrela, bada, Kirol Diziplinako Batzordeak Partidu eta Lehiaketaren Arautegia aplikatu baino ez du egin; izan ere, 50. artikulua arabera, joko-eremuko ordezkariari dagokio joko-eremuaren babes-guneaz arduratzea, baimendu gabekoei sarbidea eragotziaz eta bertaratutako guztien ordena mantenduz; halaber, epaileak jakinarazten dizkion aginduak betetzea ere badagokio, eta



ordena bermatzeko beharrezkoak diren bezainbat neurri hartzea, partidaren garapen normala erraztea eta edonolako gertaera ekiditea.

Bestalde, Partida eta Lehiaketen Arautegiaren 75. artikuluan, 50. artikularen b), c) eta e) paragrafoetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik hilabete BAT eta SEI hilabete bitarteko gaitasungabetzea ezarriko da.

Kasu honetan, zigorrik txikiena jarri da, gertatutakoak aintzat hartuta; beraz, proportzionaltasun-printzipioa bete da.

lido beretik, eta errekurtsua egin duen zelaiko ordezkariaren alegazioa gorabehera, partida guztietan babesgune perimetrala okupatzen dela esatea ez da alegazio adierazgarria errekurtsu hau ebazteko, zeren, Federazioak dioenez, Kirol Diziplinako Batzordeak epaile-aktetan bildutako salaketetan oinarrituta jarduten baitu eta, kasu honetan, salatutako gertakizunak arau-hauste ote diren eta jarritako zigorra arau-haustearekin bat ote datorren erabaki behar baita; eta azaldutakoa aintzat hartuta, alderdi horiek behar beste egiaztatuta eta arrazoituta geratu dira.

LAUGARRENA.- Partida eta Lehiaketen Arautegiaren 50.b) artikuluan tipifikatutako eta guk azaldu dugun arau-haustea, zelaiko ordezkaria gaitasungabetzeko zigorraz gain, taldeari zuzendutako zigor ekonomikoa ere badakar –Partida eta Lehiaketen Arautegiaren 75.b) artikuluan xedatuta dago–, eta lehen esan dugunez, zelaiko ordezkariaren zigorrari atxikita dago. Kasu honetan, 35 eurotik 350 eurora bitarteko isuna izan daiteke baina txikiena ezarri da -35 euro-; beraz, ezin zaio ezer leporatu jarritako zigorrari.

BOSGARRENA.- Azkenik, PLA Partida eta Lehiaketen Arautegiaren 81.f) artikuluan arau-hauste larritzat jotzen da PLAREN 53. artikuluan aurreikusitakoa



urratzea; izan ere, 53. artikularen arabera, agindu horretan bertan baimentzen diren pertsonak ez badira, gainerakoek debekatuta dute jokalekuan sartzea.

Zehazki, adierazitako 81. artikulua honako hau ezartzen du:

“Arautegi honek ezartzen dizkieten betebeharrak ez betetzeagatik, Klubak zigortuak gertatu ahal izango dira:

(...)

f) **53. artikularen arau-haustek; izan ere, artikulua horrek joko-eremuan agindu horrek baimentzen dituen pertsonak ez direnen sarbidea eta presentzia debekatzen baitu;** ala lehiaketaren arautegiak eskatutako baldintzen arabera osasun ala laguntza zerbitzurik ez izateak Klub arduradunarentzat zigor bat ekarriko du, eta 100 € eta 200 € bitarteko isuna izango da.

Zigor hori jartzeari dagokionez, Batzorde honen ustez ez dago behar beste justifikatuta.

Izan ere, ikusi dugunez, zelaiko ordezkariari zigorra jartzeak klubari ere zigorra jartzea dakar, eta zigor hori eragin duen arrazoia da baimendu gabeko jendeari babesgune perimetralean egotea ahalbidetu ziola.

Klubari jarritako zigor ekonomikoaren kausa hori bada, PLAREN 75. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ez dirudi egokia denik arrazoi beragatik beste zigor bat jartzea errugbi-taldeari, hori ez baitator bat “non bis in idem” printzipioarekin – Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikuluan jasota dago–; horren arabera, ezin da gertakari berengatik berriro ere zigortu, subjektua, gertakaria eta funtsa zigortu edo zehatutako berberak direla ikusten bada.



Baina horrek ez du esan nahi PLAaren 81.c) artikulua arabera inoiz ezin izango denik zigorrik jarri PLAren 53. artikuluan aurreikusitako ez-betetzea ere zigortzen denean, baina aztergai dugun kasu honetan, lehen ere esan dugunez, ez dute azaldu zergatik zigortzen duten berriro ere Kluba, 53. artikulua onduzko betebeharrak ez betetzeagatik bai zelaiko ordezkaria, bai taldea bada zigortu badira; horrenbestez, zigor hori kendu egin behar da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

██████████ jaunak, Atlético San Sebastián taldearen zelaiko ordezkariak, Euskadiko Errugbi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2015eko otsailaren 11ko Erabakien aurka aurkeztutako errekurtsua partzialki baiestea, eta honako hauek adieraztea:

a) Club Atlético San Sebastián taldeari PLAren 81.f) artikuluan aipatzen den arau-hauste larria egiteagatik jarritako 100 euroko isuna baliogabea dela, PLAren 53. artikuluari dagokionez.

b) Errekurtsuaren gainerakoa ezestea eta ██████████ jaunari HILABETEZ gaitasungabetzeko jarritako zigorra –PLAren 75 artikulua b) paragrafoko arau-hauste larria egiteagatik, 50. artikulua b), c) eta d) paragrafoei dagokienez– eta Club Atlético San Sebastián taldeari jarritako 35 euroko zigorra –PLAren 75. artikulua b) paragrafoko arau-hauste larria egiteagatik, 50. artikulua b), c) eta d) paragrafoei dagokienez– berrestea.

c) 2015eko otsailaren 26ko Erabaki bidez hartutako kautela-neurriaren indargabetzea altxatzea, jarritako zigorra betearaz dadin, baina kautelazko indargabetzea erabaki bitartean betetako zigorraren zatia aintzat hartuta.



Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzak 11

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA